

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMENTIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lizitazioa Armentiaiko zentro sozialean taberna zerbitzua adjudikatzeko

Kontzejuaren 2024ko irailaren 29ko erabakiaren bidez, Armentiaiko zentro sozialean taberna zerbitzua prozedura irekiaren eta zenbait adjudikazio irizpideren bidez adjudikatzeko lehiaketa arautuko duten administrazio klausula berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onetsi ziren.

Erakunde adjudikatzailerak. Armentiaiko Administrazio Batzarra.

Kontratuaren xedea. Prozedura honen xedea da lehiaketa bidez adjudikatzea Armentiaiko zentro sozialeko taberna zerbitzua.

Prozedura. irekia, hainbat esleipen irizpiderekin.

Esleitzeko era. Lehiaketa.

Lizitaziorako oinarriaren kanona. Lizitazio oinarria urtean 20.000,00 euro izango da, eta zenbateko horretatik goragoko eskaintzak baino ezin izango dira aurkeztu.

Iraupen epea. 4 urte.

Bermeak. Kontratuaren lizitazioan parte hartzeko, 400,00 euroko behin-behineko fidantza eratu beharko da Armentiaiko Administrazio Batzarraren alde. Fidantza hori eskudirutan edo abal bidez eratu ahal izango da. Eskudirutan eginez gero, Armentiaiko Administrazio Batzarraren ES25 2095 3140 5910 9522 381 banku kontuan sartu beharko da dirua.

Behin betiko bermea esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da.

Agiriak aztergai dauden lekua. Dokumentazioa ikusgai dago Armentiaiko Administrazio Batzarraren egoitzan (Armentia kalea 23, telefonoa: 945234305, e-maila: juntadministrativa.amentia@gmail.com), 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaintzak aurkeztea. Proposamenak Armentiaiko Administrazio Batzarraren egoitzan aurkeztuko dira (Armentia bidea 36, telefonoa: 945-23-43-05), astelehenetik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, hamabost egun naturaleko epean, lizitazio iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Plikak Armentiaiko Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan irekiko dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo hamabost egun naturalak bete osteko lehen egun balioduneko 20:00etan.

Bestelako argibideak. Ikusi administrazio klausula berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria.

Lizitatzailerak aurkeztu beharreko agiriak: Administrazio klausula berezien agirian eta baldintza teknikoen agirian eskatutakoak.

Armentia, 2024ko urriaren 2a

Lehendakaria

PRUDENCIO ALFREDO LÓPEZ DE URALDE APELLÁNIZ